



ELHUYAR
fundazioa

Elhuyar Hiztegiak OpenOffice 2rako

Eskuliburua



ELHUYAR
fundazioa

1. Hasierakoak


Eskuliburu honetan, OpenOfficen integratutako Elhuyar hiztegiak kontsultatzeko modua azalduko dugu. Bertsio honetan integratutako hiztegiak Elhuyar EU/ES Hiztegi Txikia (Euskara-Gaztelania/Castellano-Vasco), Elhuyar EU/FR Hiztegi elebiduna (Euskara-Frantsesa/Français-Basque) eta Elhuyar Sinonimoen Kutxa dira.

Tresna honek euskarazko, gaztelaniazko edo frantsesezko hitz batek beste hizkuntzan (euskara → gaztelania, gaztelania → euskara, euskara → frantsesa, frantsesa → euskara) dituen itzulpenak edo ordainak eskaintzen dizkio erabiltzaileari, eta baita sinonimo eta antonimoak ere.

2. Instalazioa

Windows-en instalatzeko

1. Exekutatu **ELHUYAROO-Setup.exe** aplikazioa eta **EZ ALDATU** instalatzeko biderik.
2. Instalatu eta gero, ireki OpenOffice (testu-dokumentu bat, adibidez) eta joan **Tresnak** -> **Gehigarrien Kudeatzailea** menura.






ELHUYAR
fundazioa

3. Gehigarri bat gehitzeko, sakatu *Gehitu* botoia.




4. Arakatu Elhuyar OpenOffice Hiztegia instalatu den karpetaraino ("C:\Archivos de Programa\ElhuyarOpenOfficeOO"), eta aukeratu *ElhuyarOO.zip* fitxategia.





5. Itxi OpenOfficeko leiho guztiak eta berrabiarazi OpenOffice. Menu berri bat azalduko da, *Elhuyar Hiztegia*. Hori sakatuta, uneko hitzaren ordaina lor dezakegu euskaratik euskarara (Sinonimoen Kutxa), euskaratik gaztelaniara eta frantsesera), gaztelaniatik euskarara eta frantsesetik euskarara.



6. Desinstalatzeko, joan *Gehigarrien Kudeatzailea* menura, aukeratu Elhuyar00.zip eta sakatu *Kendu* botoia.

Linux-en instalatzeko

* root moduan egin behar da instalazioa

1. *ElhuyarOOInstalatzaila.sh* fitxategiari exekuzio baimenak eman:
`chmod a+x ElhuyarOOInstalatzaila.sh`
2. Honako fitxategia exekutatu: `./ElhuyarOOInstalatzaila.sh`
3. Aplikazioa /opt/elhuyar00 karpetan instalatuko da. Ezin da beste path batean instalatu.
4. OpenOffice-n gehigarria kargatu behar da (/opt/elhuyar00 direktorioan dagoen zip fitxategia). Horretarako, dokumentu honen Windows atalean datozen argibideak jarraitu.